

1

artikulua

EKONOMIA

LAUDIO

EKONOMIAKO DIRU-ITURRIEN UGARITZERA ETA HERRIKO BALIBIDEEN ERABILERA

XXII



Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



EKONOMIAKO DIRU-ITURRIEN UGARITZEA ETA HERRIKO BALIBIDEEN ERABILERA

Geure herri edo udalerrien funtzionamendua naturan dauden sistemekin konpara ditzakegu, izan ere, horietan oreka gordetzen baita aldaketa eta garapen prozesuen zirkulazioaren bidez. Jasangarritasunera bideratutako ekimenek planteatu behar dute oso zaila dela mantentzea udalerririk beste zonalde batzuetako naturako baliabideen inportazioen eta kanpotiko ekonomia

jardueren menpekotasun oso handia duten sistemekin. Aurrerapausoak ematean datza, udalerririk bultzatzeko bakoitza bere kabuz ahal den guztian sistema legez, bai naturako baliabideetan eta bai estrategiazko ekonomia ugaritu eta orekatu baterantz egokitzen joango diren zereginetako jarduerak garatzeko.

Bide honetatik eredu ekonomiko jasangarria lortzeko kontutan izan behar diren printzipio edo erizpideak honako hauek izango ziren:

- **Ekonomiako diru-iturrien jarduera ereduak ugari bilatzea, Laudio udalerrikoak bertakoagoak izango diren gizarte eta kultura aspektuei atek zabalaraziko dietenak.**
- **Ekoizpen sektore baten eta ekonomiako monolaborantzen gehiegizko menpekotasuna saihestea.**
- **Herrian dauden baliabideekin herriko beharrian ugarien arteko batzuk, ahal den neurrian, behintzat, asetzen saiatzea.**
- **Ekonomiako sektoreen koordinazio eta garapen baldintzak bultzatzea, beraien elkarren arteko elkarrekin baterako sinergia guztiak maximizatzen baliabideen aprobetxamenduan eta zerbitzuen erabileran, horretarako behar diren azpiegiturak eskainiz.**

Bestalde, azken 50 urteotan, langileen eskubideak eta lan baldintzak babesteko aurrerakada nahikoa garrantzitsuak gertatu dira. Hala eta guztiz ere, gertatu diren onura horiek ezin dute ostendu eta ezkutuan utzi gaur eguneko ekonomiaren hazkunde ereduak sortu dituen efektuetako batzuk. Horra hor, gertatu diren langabeziaren arazoak, gizarte bazterkeriarena eta gaizkiletzaren igoerarena, gizarte eta ekonomia mailan desberdintasun egoera gero eta handiagoak eta gizarteko sektore jakin batzuetan pobrezia handitzea.

Jasangarritasunerako bideak, ostera, eskatzen dituen ekonomia politikak eta jarduerak herriaren markoa gainditzen dute. Hala da, baina, udalerrietatik neurriak hartu ahal dira ondorengo hauetarako:

- Enplegua sortzeko.
- Pertsonen sormena, interesa eta parte hartzea eragiten dituzten enpresa ekimenak bultzatzea.
- Agente ekonomiko eta sozialekin lan taldeak sortu eta dinamizatzea.
- Gizarteko sektorerik desfaboratuenei gizarte laguntza eta ongizate programak hedatzea.



Azken urteotan, gauzatu dira ekimen batzuk Laudioen ekonomi garapena bultzatzen saiatzen direnak, ingurumari egokia eta erraza sortzen saiatuz udalerrian aberastasuna sortzeko eta udalerrien ekonomi jarduera dinamizatzaileak garatzeko.

Laudioren Jasangarritasunerako **ekintza plana**



Laudion zer egin da?

- Gutxi aprobeztatutako zonaldeak hiritartu, urbanizatu.
- Merkataritza dagoen aldeetara herritarren irisgarritasuna erraztea.
Erdiguneko kaleak oinezkoentzat bihurtuz eta aparkalekuak eraikitzen.
- Industria, merkataritza eta aisialdi jarduera bultzatzeko planak.
- Formazioa: udalerrriaren berraktibatze eta ekonomi sustapena neurri handi batean herrian kualifikaziodun eta prestakuntzadun lanekuaren eskuragarritasunaren arabera dago.
- Informazio Gizartearen Garapena.

Laudion zer falta da egiteko?

Arlo honetako gaur eguneko diagnosia eta azken urte hauetan gauzatzen ari diren ekimenekin batera, Laudion Jasangarritasunerako Ekintza Planak ondorengo egitarau eta programak planteatzen ditu, horietako gehienak dagoeneko martxan jarrita daudelarik intentsitate handiago edo motelagoaz; hara, honako hauek:

- Emakumeen enplegua bultzatzeko programa, sektore zigortuenetakoa baita.
- Haur Hezkuntzako Lehen Ziklo berria martxan jartzeko programa (0-3 urte artean)
- Gizarte bazterketa arrisku larria duten pertsona eta kolektiboek laguntzak mantentzeko eta berriro gizarteratzeko laneratzeko ekimenak biziberritzeko programa.
- Merkataritza sektorea biziberritzeko programa.
- Informazio Gizartean udalerrria ahal denik eta gehien gizarteratzea eta sartzea.
- Hirugarren Adinekoentzako asistentzia programa.



Zerbait egiteke geratzen dela uzte baduzu, parte artu **Laudio denon arteko konpromisu bat**.

Hau da 13 artikuludun bildurraren bigarren alea. Bilduma egin nahi baduzu, udaletxetik aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizugu, udaletxeko Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu.